

**LHKren eta EGABen lege-aurreproiektuak: gabeziak
edukietan eta atzerakada demokratikoa**

ELA, 2011ko maiatza

I- AURREPROIEKTUEN AZTERKETA

Eusko Jaurlaritzak Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen (EGAB) lege-aurreproiektuak igorri dizkio ELAri.

LHKaren lege-aurreproiektuko puntu berriak:

- Sindikatu batek bere ordezkariak ezarritako epean izendatzen ez baditu, edo agintaldiaren uneren batean uko egin edo LHKra behin eta berriz agertuko ez balitz, bere postuak gainerako sindikatuen artean banatuko dira, hauen ordezkaritza araberak.
- LHKko erabakiak hartzeko sistema aldatu egiten da egiteko kontsultiboetarako (ez, ordea, negoziazio kolektiboarekin eta lan-harremanekin zerikusia duten gaietarako).
- Aurrerantzean esparru kontsultiboko erabakiak kideen gehiengo sinplez hartuko dira; negoziazio kolektiboko gaietan, berriz, mantendu egingo da erabakia talde sindikaleko eta enpresarialeko gehiengoz hartu beharra.
- Talde sindikalean boto haztatuaren irizpidea kentzen da. Aurrerantzean, osoko batzarrean zein lan-batzordeetan kide bakoitzak boto bana izango du.
- Presidente eta idazkari nagusia Jaurlaritzako Lehendakariak izendatuko ditu. Orain arte LHKk izendatzen zituen, eta soilik epe jakin bat igarota adostasunik ez bazegoen (6 hilabete presidenteari dagokionez eta 3, idazkari nagusiaren kasuan) egiten zuen izendapena Lehendakariak.
- Egiteko kontsultiboa Eusko Jaurlaritzaren legegaiei edo dekretu-proiektuei buruz politika laboraleko gaietara mugatzen da.

EGABen aurreproiektuan jasotako aldaketa nagusiak honakoak dira:

- Sindikatu batek bere ordezkariak ezarritako epean izendatu ezean, edo agintaldiaren uneren batean uko egin edo behin eta berriz EGABera agertuko ez balitz, bere postuak gainerako sindikatuen artean hauen ordezkaritza mailaren arabera banatuko lirateke.
- EGABeko erabakiak hartzeko sistema aldatu egiten da. Orain arte erabakiak talde bakoitzeko gehiengoz hartzen ziren, baina aurreproiektuak dioenez erabakiak bileran parte hartu eta botoa emateko eskubidea dutenen gehiengoz hartuko dira.
- Talde sindikalean kendu egiten da boto haztatuaren irizpidea. Aurrerantzean, bai osoko batzarrean zein lan-batzordeetan, kide bakoitzak boto bana izango du.
- Adituak hautatzeko sistema aldatzen da. Orain arte zortzi adituak EGABeko gainontzeko taldeek hautatzen zituzten. Aurrerantzean, berriz, Jaurlaritzako Lehendakariak izendatuko ditu.

- Presidentea Lehendakariak izendatuko du, baldin eta botoa emateko eskubidea duten hiru taldeen artean adostasunik ez badago. Orain arte EGABek hautatzen zuen presidentea.
- Idazkari nagusia ere Lehendakariak hautatuko du. Orain arte EGABek aukeratzen zuen.

II- ONDORIOAK

ELAk aurreproiektu hauek ez ditu onartzen, honako arrazoiak medio:

1. Aurreproiektuak egiten hasi aurretik ez da ELArekin inongo kontsultarik egin; hau ez da zentzuzkoa, organo hauetan mamitzen baita sindikatuen parte hartze instituzionala, eta ELA da hain zuzen sindikatu nagusia. Sindikatu honek aurreko Enplegu sailburuorde zen Carlos Zapaterori adierazi zion Jaurlaritzarekin gai honi buruz hitz egiteko interesa zuela, baina exekutiboak ukatu egin zuen aukera hau.
2. LHKko eta EGABeko aldaketekin Jaurlaritzak, Confebaskek, CCOOek eta UGTk hitzartu duten politikari babes legala eman nahi diote. Jaurlaritzak CCOOen eta UGTren artean banatu du ELAk LHKn zuen ordezkaritza, eta ELAk zein LABek EGABen zutena; horrenbestez, sindikatuen parte hartze instituzionaleko joko-arau demokratikoak urratu ditu, eta ez du sindikatuen benetako ordezkaritza maila errespetatu. ELAk jokabide hau salatu egin zuen, eta lege-aldaketak adierazten du Patxi Lopezen lehengo erabakiek oinarri juridikorik ez zutela. Jokabide zeharo antidemokratikoa dugu hau.
3. Erakundeotako erabakiak hartzeko sistema aldatuta patronalaren eta minoria sindikalaren arteko akordioak erraztu nahi dituzte, gehiengo sindikalak EGABen eta LHKn parte hartzen duela zein ez. Beraz, erakundeok blindatu egin nahi dituzte parte hartzea etenda daukagunok itzuliz gero erabakiak Confebasken, CCOOen eta UGTren esku gera daitezen.
4. Erakundeon arazoa ez datza erabakiak hartzeko sisteman. Sarri esan izan den arren ELAk blokeatu zituela LHK eta EGAB (ELAk beto ahalmenik inoiz izan ez badu ere; betoak patronalak ezarri ditu), gure parte hartzea etenda gero ere akordio gehiago ez da iritsi.
5. Talde sindikaleko boto haztatuta kentzea beste urrats bat da sindikatuen benetako ordezkaritza desitxuratzeko bidean.
6. Lehendakariak presidenteak, idazkari nagusiak eta EGABeko adituak izendatuko ditu; Jaurlaritzaren kontrol handiagoa lortu nahi du erakunde kontsultibo hauetan, bere politikei dagokienean.
7. ELAk aldarrikatu egiten du bere ordezkaritza erabiltzeko duen eskubidea, eta uste du bere erabakiek parte hartze instituzionaleko erakundeetan eragina izan behar dutela.
8. Lege-aldaketa hauekin LHK eta EGAB areago izango dira erakunde hutsak, non parte hartze sindikala ezartzen diren politikak onesteko izango den (hala gertatu da EGABek bilakaera demografikoari buruz egin duen txostenean edota LHKko presidenteak Legebiltzarrean egin duen agerraldiarekin). Politika horiekin eskubide laboral eta sozialei eraso

egiten ari dira, baita aurrekontuak murrizten ere, eta aldebakarreko erabakiz ezartzen dituzte gobernuek, patronalaren bedeinkapenarekin. Honi "elkarrizketa soziala" deitzea edota erakundeok ezertarako balio dutela sinetsarazi nahi izatea, egoera gero eta argiagoa izanik, oso broma txarra da.

9. EGABen erreforman ez da sartzen funtsezko hainbat gairi buruzko kontsulta, esaterako fiskalitatearen edo gizarte-zerbitzuen ingurukoa. Gai hauek lurralde historiko bakoitzean erabakitzen dira, baina sindikatuei kontsulta egiteko modurik ez dago. Erreformak egoera hau finkatu egiten du.
10. Eusko Jaurlaritzak ez du inondik nahi bere politikak gizarte mailan eztabaidagai izaterik. Gehienera jota, tramite formal hutsak onartuko lituzke, baina erakunde sozialek politikak zehazterakoan inongo eraginik ez duten heinean. ELAk eutsi egingo dio bere jarrerari, eta estrategia hau ez du babestuko; izan ere, hau izan zen EGABen eta LHKn parte hartzea eteteko arrazoietako bat.